

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua, adin ezberdinetako pertsonentzat bideratuta dago, nahiz eta erosketak egiteko, 18 urte baino gehiagoko adina izan behar duzun. Hala ere, aplikazioa jende nagusientzako eta umeentzako egokitu ahal izango da, zure lehentasunak hautatuz.

Aplikazioa halik eta sinplifikatuen egongo da, jende nagusia erraztasunez erabili ahal izateko; esate baterako, Apple eta Amazonek dituen ahots laguntzaileak bezeroen eskura egongo dira, ahoz zerbait eskatu ahal izateko. Egunero muga bat ezarri ahalko da, umeek edo oroimen arazoak dituzten nagusiek, gauza gehiegi ez eskatzeko. Letren tamaina aldatu ahal izango da ikuspen urritasuna daukaten jendea hobeto ikusi ahal izateko.

Zenbait produktu *baneatu* ahal izango dira umeek lortu ez dezaten eta gurasoek erabakitzeko aukera izango dute zer motatako guraso-kontrola erabiliko duen aplikazioa.